

TOMATE ENTSALADA

written by Errezetak



Aita Amaren etxera joaten garen bakoitzean, barazki izugarri onak ekarri oi ditzakegu, eta kalitate goreneko produktu hauek ez dute asko behar sekulako jaki bat bilakatzeko

Osagaiak:

4 Perts.
4 Tomate (etxeko baratzeak, askoz obe)
3 Baratxuri
Albaka
Olioia
Gatz Lorea

Prestaketa:



Tomateak garbitu. Enborra eta ipurdia kendu ondoren, atal (gajo) modura zatitu.



Baratxuriak xaflan zatitu ondoren (atsegin ez zaionari erraz kentzeko), gatz lorea, albaka eta olia gehitu.



Gatz lorea erabili egin dut arrunta baino zapore hobeagoa ematen diolako. Azkenik gaineratik oliba birjina gaineratik gehitu.

Gainera **Jaitz** (Salinas de Oro) herrian erositakoa da, pittin bat garestiagoa, baina merezi du eta horretaz gain, gure herriko ekonomia berpizten dugu.

